

PRENTSA OHARRA: 2022.03.21

Euskal ekoizpenak garaile Nantesko zinemaldian

- **‘Maixabel’ euskal ekoizpenak film onenaren saria eta publikoaren saria jaso ditu**
- **Leire Apellániz eta Marc Sempereeren ‘Canto cósmico. Niño de Elche’ lanari dokumental onenaren saria eman diote**

Atzo bukatu zen Nantesko Festival du Cinéma Espagnol jaialdiak zapore gozoa utzi dio euskal zinemari, izan ere, banatu diren zazpi sarieratik lauk euskal protagonistak dituzte.

‘Maixabel’ (2021), Kowalski Films donostiarrak ekoiztako lanak, film onenaren Jules Verne saria eta publikoaren saria jaso ditu. Film batek bi sari hauek jasotzen dituen bigarren aldia da jaialdiaren historian.

Marc Sempere eta Leire Apellanizen ‘Canto cósmico. Niño de Elche’-k (2021) berriz, dokumental onenaren saria irabazi du. Eta azkenik, ‘Loop’ film laburrak, Bilboko Unikor ekoiztia, labur onenaren saria jaso du.

Nantesko zinemaldian urtero egiten den Fenêtre Basque (Euskal Leihoa) zikloa Euskal Herritik kanpo aurki daitekeen euskal zinema programazio zabalenetakoa da. Etxepare Euskal Institutuak babesten duen atal honek urteko euskal ekoizpen nabarmenen eta, oro har, euskal zinemagile garrantzitsuenen lanen hautaketa bat proposatzen du.

Guztira, 15 lan aurkeztu dira aurtengo edizioan, martxoaren 8tik 20ra bitarte: bost film luze, bederatzia labur eta serie bat. Horietatik bost ekoizpen sail lehiakorretan ere egon dira.

Jaialdiari buruz

1990ean sortu zen Festival du Cinéma Espagnol de Nantes jaialdiaren helburua da Espainiako Estatuan egindako zinea Frantzia zabaltzea da eta horretarako emanaldi zinematografikoez gain ekitaldi ezberdinak gauzatzen dituzte jaialdiak irauten duen bitartean: mahainguruak, arte erakusketak, kontzertuak, etab. Urtero 27.000 ikusletik gora biltzen ditu jaialdiak, baita kritikari eta industriako profesionalak ere.

2020eko edizioa osasun egoeragatik bertan behera utzi ostean, eta 2021eko edizio hibridoa eta gero, jaialdia aurrez-aurre egin da aurten. 31. edizio honetan 60 film ikusi dira eta 40 gonbidatuk hartu dute parte.

Nantes da euskal zinema gehien ikusi eta baloratu den Europako hirietako bat. Izan ere, Fenêtre Basque atalak 21 urte bete ditu aurten eta euskal zinemako izen handiak pasa dira bertatik euren lanak aurkeztu eta publikoarekin solasean aritzeko.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus